



## BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

### Salmenta kanala

Gure produktua berezoengana iristeko metodo desberdinak erabiliko ditugu. Komunikazio kanalari dagokionez, gure enpresak web gune bat izango du; bertan, bezeroek gure ondasunak zeintzuk diren ikusi ahal izango dute eta horrela gozoak ikusi ahal izango dituzte erosi baino lehen.

Baita ere, web gunearen bitartez bezeroek online bidezko eskaera egiteko aukera dute. Horretaz gain, sare sozialak erabiliko ditugu ahalik eta publizitate gehien eginez. Horrek, gero eta erakusle gehiago erakarriko ditu eta gure salmentak igo egingo dira. Erabiliko ditugun sare sozialak Instagram eta Tik tok izango dira. Instagramen kontu bat irekiko dugu gure enpresaren izenean eta han gure produktuak igoko ditugu ahalik eta ikusgarritasun handiena emanaz.



Bestalde, kolaborazioak eta kanpainak egitea pentsatuta daukagu. Influencers eta pertsona famatuekin kontaktuan jarriko gara kolaborazioak egiteko ikusgarritasun handiagoa lortuz.

Horrez gain, kartel batzuk utziko ditugu auzoko etxeetan jendeak ikusi dezan, horrela auzokoek ezagutu ahal izango dute eta inguruko senideei eta lagunei gomendatu.

### Komunikazio kanala

Gure komunikazio kanala ahozko transmizioa eta idazizko transmisioa izango da.

- **Ahozko transmizioa:** horretarako bezeroekin harremanetan jartzekotan ahozko transmisioa egingo diegu. Bezeroak dendara sartzean elkarriketaren bidez komunikatuko gara. Baita ere, web gunearen bidez, enpresari deitzeko aukera izango dute eta deiaren bitartez ahoz transmitutuko gara.



- **Idatzizko transmisioa:** Sare sozialen bitartez eta gmailen bidez, haiekin kontaktatuko dugu eskakizunen bat egin nahi badute. Modu honetan, ez da beharrezkoa izango haiekin parez pare hitz egitea. Horrela distantzian dagoen jendea gurekin komunikatzeko aukera izango du.

## Banaketa kanala

Gure gozoak banatzeko banaketa zuzena egingo dugu. Hau da, guk ekoizitako gozoak haiei zuzenean emango dizkiegu, eta ez da beste enpresa batetik pasako. Hau da, gu izango gara ekoizleak, guk produktuak ekoizi eta

zuzenean bezeroei salduko dizkiegu eta horren ondorioz gure banaketa kanala zuzena izango da. Guk zuzenean bezeroekin harremanetan jarriko garelako eta ez delako inor egongo erdian. Hala nola, beste enpresaren bat.

